

IV <sup>garren</sup> ITANASASÍA.—(ACERTIJO.)

Esan zaidazu; ¿nola diteke  
Izan gauza egokia,  
Iru aita eta iru semek  
Lau persona egitia?  
Neronek daukat, chiki denboran  
Orrelako pamilia,  
*Argaitza*\* izena duen baserri  
Politean ikusia.

C. DE OTAEGUI.

Echera nuala,  
Jo det arri kozkor bat  
Uste ez detala;  
Aren kazkatekuak  
Ordubanchen iya  
Bi puzka egin ziran  
*Bata eta biya.*  
Emateko denboran  
*Iruba* kantuban,  
Entzuteko jartzen naiz  
Beraren kontuban.  
Pelotan partiduba  
Jokatu nai bada,  
*Laba eta iruba*  
Lenengo bear da.  
Baldiñ ori ez bada  
Egiten lenbizi,  
Kintze bat ez liteke  
Gero irabazi.  
*Bata eta laba* da  
Chit gizon argiya,

Ondo Donostiya;  
Ez baldin badakizu  
Zein dan diyotana,  
Gorputz chikicho bat da  
Eta belcharaná.  
Orra jarri siñalez  
Patera betia,  
Ez badezu asmatzen  
Or kanpon zaitia.  
*Bata, iruba* eta  
*Biya* segiruban,  
Denak erretzen dute  
Sua-ren moduban.  
Ikutu nubeneko  
Beiñ uste gabian,  
Senti-arazi ziran  
Biatz muturrian.  
Ala sartu zitzaidan  
Orduban barrena,  
Geroztik beti daukat  
Nerekin diena.

ZORTZIKOA.

Diñostezu Catalin  
Zer dan zortzikoa?  
Da zortzi onen ganian  
Dagoan bertsoa

Zortziko bertsoen da  
Kantia laguna;  
Eta onek dantsa eder bat,  
*Guztija euskalduna.*

Eusebio M.<sup>3</sup> Dolores de Azcue.

\* *Cegamaco* baserri eche bat.

## SECCION AMENA.

### ZIRI-BERSOAK.—(EPIGRÁMAS.)

*Itz-oneko gizona.*

—¿Noiz pagatuko nazu,  
Pello Mokorua,  
Lau illabete ontan  
Zor nazun durua?  
—Pagatu nai nioko  
Momentu denetan,  
Baña paltarik gabe  
An du bigar bertan:

—Ori esaten nazu  
Egunero nerí,  
Baña nigana ez da  
Duruá agerí...  
—Esaten badiyot nik  
Beti ori bera,  
Siñale da itzeko  
Gizona naizela.

*Ondo erantsuna.*

—¿Nork agindu dik iri,  
Alper golosua,  
Ostu eta jateko  
Bakallo osua,  
Apaltzeko ustian  
Neukana jasua?

¿Orain orren kastiguz  
Zer mereei dek ik...?  
—Galdetzen dit ia, zer  
Merezi dedan nik...?  
¡Bi baso sagardo on  
Ematen badizkit!

#### *IV garren itanusiaren askantza:*

Semea ezkongaiá,  
Aita alarguna;  
Aitonak emaztea  
Zerura juana;  
Aita bisabak illa

Bere andre ona:  
Nere itanasía  
Azaldua ona:  
*Iru aita ta seme  
Eta lau persona.*

C. de Otaegui.

#### *XI garren somaketaren askantza: OÑASIA.*

### XII garren SOMAKETA EDO ASMAKETA.

*Bata da gauza bat  
Ikusten ez dana,  
Eta gauzak ongi  
Ikusteko dana.  
Dendetan saltzen da  
Bata eta biya,  
Gauza on bat baita  
Jateko ogiya,*

*Iruba ta lauba  
Dezu Donostiya,  
Bañan alderdi bat,  
Ez dena guztiya;  
Eta da diana  
Bizi-toki zar bat,  
Bizi ziranakin  
Zuk gordea anbat.*

R. Artola.

ASKANTZA *urrengo lumero edo liburuchuan*